

—Latzikaraz galdua
nora zoaz ortik?
Gosez dagon piztia
al dozu atzetik?

—Ori ez litzake ezeri
—arek iñoana—.
—Gizeraillen bat ete?
—Ez, baltzago dana.

Igelak dagie ots:
—**Tentel, ez geiago!**—
Ak aurrera lasterka,
su ta gar, leiago.

Ergel bat etorkion
atzetik jarraika;
gatxik andiena, antza,
a bai dozu oska.

AZKE ZARA!

«Neu» gaiztoaren jabe zaitut aspaldi,
al izatearen arrogai txepel.
«Geroa dot eskuan», diñozu alai,
ta azke zara, setati, biur ta sendo;
opa dozun guztira, baiña, ezin el.

Azke izatea gaitz-iturri noski:
zentzunen leio zear sartzen gaitz-moitzo,
azke izatetik dator mintea bera...
Eta amilbera zoaz, arritzar antzo,
gauza etzareala, ezetara be,
lertu-bearra dan gai orri eusteko.

Garbi-premiña dozu argi altzoan,
t'egotz zaite suaren errai bizitan.
Gaiezko suak ezin zure gaitza txau,
beste su bat, azkarra, bear orretan.
Maite sua da erre ta samiñago:
arimaz garbitzeko, sar zaitez bertan.

Fedez ustetsu zaite, ekiñez ona;
goi ta be, suak zaitu jarriko aratz.
Obenak, uste izpiak oro al suntsi?
—Bota ni biotzetik, diñozu garratz;
ez naz ni iñolaz zure onaren diña,
jarraren otza dau ikoak mergatz.

—Alperrik ete gure izketa gozo?
Ez al gara, egiaz, maite suz ezer?
—Ez nozu giltzapean maltzur sartuko;
esaidazu juteko trumoi klaska ler.
—Bai, azke zara. Zoaz! Zabiltz arrano,
naiz, lur-urreragoa, zelaiko eper.

Ez diñotzut juteko, baiña azke zara;
ez dozu nik jarrita bidean zotzik.
Gazte zara, bai gazte; zabiltz or zear,
aideko mitxeleta baizen azkerik.
Baiña ori al dozu azke izatea,
maitasunean ez ba'dozu usterik?

BETI EUSKALDUN

Ez gara ilkor!... Ez ete?...
Beti zarreko ta barri...
Jainkoa zar, zar euskal erri.
Zar biok beitez zoragarri?

Jainkoa ortzi goitik,
beian gure lurra jori...

Euskal lur,
euskal erri!

Jainkoak egiña zara zu,
mendi ta ibar narotsu.

Lurrez ez zara zabala,
baiña fedez bai garbaia.
Osorik zaitugu lerden,
egite garbitan guren.

Euskal erri,
lur maite:

Jainko ta erri zait!

Zure sabel emokorrak
beñola gatzatu nindun,
eta miñak ikutua
orain nabil zauridun.

Euskal lur,
oillo-lur:
nadin beti euskaldun!

EZIN ULERTUA

I, gazte, zer uste dok? Ba-dok goi-txingarra,
buru-barne dizdira, zeru izatezko indarra.

Baiña zer aiz, bestela? Artxo zapaldua?
Txio emeko txepetx? Mendiko gandua?

Jakintsu aiz eure ustez, buru-tente, txotil;
dana ulertu gurean, goi-amesez abi.

Or izadia... Zer al dakik guzti ortik?
Errai ta koskol ba-yok Jainkoak ereiñik.

Ta ik buruaren barru danori sartu nai?
Ez al yak geiegia, ire ames pentzai?

Tangea ta ur txanbilla, begira ontzi bi.
Txanbilleko ur guztia, zer? tangán irauli?

Moduzko aizala be, eziña dok, guztiz:
ire antze kemena yoak uts itzaliz.

Ez egik ulertu nai Jainkoaren ala;
ekiñak bait diñostak eziña dokala.

Ostera: zer aiz, gazte? Zeru txingarra, bai.
Besterik zer? Lillura, uskeri, gora-nai.

AMAREUNA

Sapaian arilketan
abillen amareun,
esan eidak, bertantxe,
norentzat dokan eun.

—Euliak opa ditut
arrapatu bertan,
gaurkoz asealdia
palta ez dakidan.

—Ez naizu lots-arazo
ariltze orrekin;
lorak ditut azpian,
oa egan urrin.

Ezeizu, ez, lorarik
sast-egiñik izu.
Oa, sare ori
urriñago eundu.